

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Elkarreak aurrera egin dezan, materiala oso garrantzitsua da; beraz produktuarentzat egokia den materiala biltzeko eta eskuratzeko harremanetan jarriko gara beste zenbait elkarteekin. Izan ere, hasiera batean ez dugunez guztiz zehaztuta edukiko nolako edo nongo materialak erosi, beste elkarteekin kontaktuan jartzea oso garrantzitsua egingo zaigu. Hala, haiek materialaren inguruan izan dituzten kasu eta esperientziak jakiteko aukera izango dugu gure erabakiak hartzerako garaian.

Hasiera batean gure kabuz egingo ditugu poltsak, baina gero eta lan edota eskaintza handiagoa izanez gero, aliantzak egitea ere oso onuragarria ikusten dugu elkarteak aurrera eramateko.